

**B10****Angelina gloriosa...**

Martin Lopez Bikuñaren eskuak idatzi du poema hau. Ohi bezala, ez du lerro-banaketa arautu, eta, hortaz, hemen aurkeztu dugun lerro-banaketa geuk ezarria da, beste bertsio batzuetan oinarrituta: gehienak zortzi silabako bertso-lerroak dira, eta, gehienetan, baina ez beti, binaka egiten dute errima, pareatuen segida osatuaz.

Dirudienez, otoitz-sorta bat da, erlijiozko erromantzea; gero ikusiko dugunez, esan nahiz kantatu egin zitekeen. Gai nagusia oso ezaguna da: Jesusen jaiotzaren berri ematea artzainei (B10: 1-13). Baina jaiotzaren berri-ematearekin batera salbazioaren berri ere ematen denez, Jesusen pasioa ere iragartzen da aldi berean (B10: 9-13). Hortik aurrerako testua badaezpadakoa da Martin Lopez Bikuñaren testuan, gai solteak aipatzen baititu, loturak ondo egin gabe. Lehenik, Toursko San Martinen kapa-partiketaren istorio ezaguna iradokitzen da, zati bat erromesari emango balio bezala, eta horrekin erromes-bidean jarraitzeko aukera (B10: 16-19). Gero (B10: 20-24), otoitz hau zelan esan behar den eta ondo esanez gero zer irabaziko den zehazten da.

Otoitz-sorta honen aldaerak aurkitu ditugu, hala gaztelaniaz, nola katalanez, baina badirudi Lazarragaren eskuizkribukoa dela gaztelaniazkoaren lekukotasunik zaharrena (gogora dezagun Martin Lopez Bikuñaren idazketa-lana 1609.ean kokatu dugula). Bitxia bada ere, Lazarraga eskuzkribuko bertsioaren bigarren zatian motiboen nahaste kaotikoa dirudiena bere horretan iritsi da, ahozko tradizioan, XXI. mendera arte; izan ere, 2002.ean bildu zen, Aragoiko Campo de Belchite eskualdean, Martin Lopez Bikuñaren bertsiotik hurbilen geratzen den aldaera, motibo gehien-gehienetan, eta are hurrenkeran, XVII. mendeko bertsioarekin bat datorrena. Eta, Aragoiko bertsioan agertzen ez diren elementu bakarrak (B10: 22-24) Katalunian 1917an bilduriko aldaeran agertzen dira.

Hiru aldaera ikusiko ditugu hemen, Martin Lopez Bikuñarenarekin batera:

- Campo de Belchite (2002). “Oración a San Martín”. Berri-emaleak: Grupo de mujeres de Lagata (2002-05-12ko grabazioa). Cf. Bernad & Carné s.d.
- Errioxa (a. 1942). “Águila de rosa fiel”. Berri-emalea: Dolores Carrizo. Cf. Carrizo 1942: II, 338.
- Katalunia (1917). Cf. Centre Excursionista de Catalunya 1917.

<b>Martin Lopez Bikuña (1609)</b>	<b>Campo de Belchite (2002)</b>	<b>Errioxa (a. 1942)</b>	<b>Katalunia (1917)</b>
Angelina gloriosa, tan fermosa como la rosa;	Angelina muy hermosa más que un lirio y una rosa Cuando Dios quiso nacer		Angelina gloriosa, més val un ciri que una rosa;

quando Dios Hijo nació por la tierra pareció. Bino el ángel San Graviel: “¡Oy el pastor, el de Mendia! ¡Qué hizo nuestra Señora María! ¡Oy, Dios, gozo alegría! ¡Alegraos! De todavía todo el mundo salvaría, sino aquel perro judío que nuestro Señor mató y manos enclavó”. Su corazón vendido, el espino con espino, dé al varón en San Martín. “Con gran dolor, romero, vete a tu vida; ganarás Roma sancta”. Las puertas del Padariso aviertas las allaría. Ángeles cantan en coro con coronas de oro.	a sus tiempos padecer Ya baja un ángel del cielo que se llama San Grabiél Pastores tener buen día que hoy ha parido María Con buen gusto y alegría la alegría que ella tuvo A t’ol mundo le gustaría menos al moro judío Que entregó a nuestro señor siete espinas le clavó Y otras tantas le dejó San Martín con guen dolor partió la capa con dolor La mitad le dio al romero y la otra mitad al señor Romero vete a tu casa a cuidar tu santa casa Romero vete a tu día a ganar tu romería Quien dijera esta oración siete veces cada día	Águila de rosa fiel, Cuando Dios quiso nacer, Vino el ángel San Gabriel Y le dijo a sus pastores: —Pastores de romerías, Un hijo parió María Con gozo y con alegría. Los perros de los judíos Lo sacaron con la cruz; Y una corona a Jesús De espinas se la pusieron. San Martín con gran dolor Echó la mano a la espada: Cortó un paño de color, Lo mejor para el Señor, Lo peor para el Pastor. Pase uno, pasen dos, Tres con la madre de Dios.	baixa un àngel del cel, que se'n diu Sant Gabriel; àngel, el rei del cel ja ni'n dóna el bon dia, puix la Verge ha parit amb gran goig i alegría. Als peus del judici el van crucifici, set espines n'hi clavaven i altres set l'encoronaven. Sant Martí portava dol amb un manto de color. Els que canten dalt del cor, porten corona d'or; els que canten a l'iglesia porten corona, corona de seda. Aquesta oració, qui la dirà i la farà dir tots els divendres de l'any, treurà una ànima de pena, i a dues si està en pecat.
<i>Pater Noster</i> ; dies Ave María. Amén.	Las puertas del paraíso abiertas las hallaría Las del infierno cerradas que jamás se abrirían		

Ikusten denez, elementu eta motibo gehienak bat datoz lau bertsoetan, eta hain zuzen Lazarraga eskuizkribukoa da itxura fragmentarioena duena, ziur aski kopiazailearen erruz.

Gaztelaniazko erromantzearen bidea ikusteko, esanguratsua da Menéndez Pidal Artxiboan (María Goyri-Ramón Menéndez Pidal bilduman) gorde den bertsoia, Rosario Menéndez Pidalek 1902 inguruan bildua Ribadesellan (Asturias), erakusten baitu otoitz-moduko hori (edo behintzat zati bat) beste erromantze ezagun bati loturik ere kantatu dela, “El castillo de la Virgen” erromantzeari loturik, hain zuzen. Garrantzitsua da, orobat, bertso hori kantatua izan zela dakigulako. Pan-Hispanic Ballad Project webgunetik hartu dugu testua:

Allá arriba en aquel alto una capilla se hacía,  
no la hizo carpintero, ni hombre de carpintería,  
hízola el rey de los cielos para la Virgen María.  
—Hizo tres ventanas de oro, labradas con plata fina;  
por una entraba la luna, por la otra el sol salía,  
por la más hermosa de ellas entra la Virgen María  
con el niño entre los brazos, llorando que tresvertía.  
—¿Por qué lloras, la mi madre, por qué lloras, madre mía?  
Si lloras porque nací, yo pronto me moriría.  
—No lloro por eso, hijo, hijo de tanta alegría,  
lloro porque has de morir una muerte en clavación,  
clavado de pies y manos como nunca fue varón.  
Has de subir a los cielos la noche de la Ascensión,  
allí encontrarás tres sillas, sentaraste en la mejor,  
sentaraste en la del medio, que está al par del Redentor.--  
Angelina tan gloriosa,  
tan linda como [una] rosa,  
cuando Dios quiso nacer,

una estrella aparecer.

Azkenik, beste bide batetik ere badakigu erromantze hau, edo behintzat erromantzearen zati bat, kantatua zela. Izan ere, José de Valdivielso (1565-1638) idazlearen 1622ko *El peregrino* auto sakramentalean musikarien ahotan ipini da poemaren beste zati bat (1622: 98v-99r):

Cantan de dentro.

[Músicos]  
 Romero, vete a tu guía,  
 ganarás la romería.  
 Romero, vete a tu patria,  
 ganarás la Roma santa.

Erromantze honek portugesez egin duen bidea ere aipatu behar da, are ezagunagoa baita hizkuntza horretan, gaztelaniaz edo katalanez baino. Portugesez ezagutzen dugun lehenengo aipua (ez testua) 1646a baino lehenago idatzia da (baina 1665.ean argitaratua). Francisco Manuel de Meloren (1608-1666) *O fidalgo aprendiz* antzezlanean, Brites neska gazteak kantuak entzun nahi ditu, eta ondoko elkarrizketa hau dauka Gil solaskidearekin (Melo, *O fidalgo aprendiz*, 592-595):

Brites: sabeis algũa ao divino?  
 Gil: Sei.  
 Brites: Dizei.  
 Gil: Pois é famosa  
 andorinha gloriosa.

Portugalen XIX-XX. mendeetan bilduriko lau bertasio (azkena 1985.ean bildua) hemen erakustea aski izango da erakusteko garrantzi handia izan duela portugesezko ahozko tradizioan. Hona hemen bildu ditugun lau bertasioen datuak:

- Madeira (1880). “Angelina gloriosa (Romances ao Divino)”. Cf. Rodrigues de Azevedo 1880.
- Figueira da Foz (1884). “Andorinha gloriosa (Em ré menor, C, Adagio”. 1884 inguruan Figueira da Foz aldean bildua. Cf. Fernandes Thomás 1913: 84-85.
- Entre Douro e Minho (1938). Cf. De Castro Pires de Lima 1938: 151.
- Portalegre (1985). “Angelina gloriosa”, Berri-emalea: Ana Fernandes Martins. Biltzailea: Maria da Liberdade Alegria Bruno (1985, Carreiras, concelho de Portalegre). Cf. Ventura s.d.

Lau bertasio hauetan (batean ez bada bestean) gaztelaniazkoetan ikusi ditugun elementu eta motibo gehienak agertzen dira: aingeruaren iragarpena, artzaina, judua, erromesa, Jesusen pasioa, otoiaren balioa... Bakarra dago agertzen ez dena (San Martinen kapa-partiketa), baina horren orde bestea saildu eta beste motibo batzuk agertzen dira (Madalena, San Sebastian, Hiru Erregeak):

Madeira (1880)	Figueira da Foz (1884)	Entre Douro e Minho (1938)	Portalegre (1985)
Angelina gloriosa,	Andorinha gloriosa	Angelina gloriosa,	Andorinha gloriosa

<p>D'aonde Christo naceu, Contae como lo senhor Hi viu luz e padeceu.» <i>Falla Angelina, e diz:</i> - Vi lo Anjo Graviel Perguntar pólos pastores: « O' pastorinhos, bom dia, Muito bom dia, pastores; A Deus gloria no ceo, A todos paz, alegria; Bemdicto filho partiu La sancta Virgem Maria.» Eu vi também los Reis Magos, Cada qual com seu thesoiro, A offerecer ao Menino Incenso, myrrha e oiro. Mui despois lá vi também Lo sancto Christo Jesus, A três cravos cravejado No sancto lenho da cruz. E vi naquelle Calvário Las três Marias lá `star Los olhos postos no ceo, Nas continhas a resar. E vi João Madanella Com toalha d` alimpar Em busca de Jesus Christo, E lá lo foram achar. Jesus disse: - «Tem-te, tem-te, Madanella, deixa star; Qu'estas são las cinco chagas Que por mim teem de passar.» E lo vi, por fim, em Roma, Lumiado no altar, No sancto calix da missa, Na hostia, s'alevar.»</p>	<p>Tam perfeita como a rosa, Quando Deus aqui nasceu, Toda a terra estremeceu; Veio o anjo Gabriel Perguntar pelos pastores; « — Pastorinhos de bom dia Aqui `stá Santa Maria Co seu livrinho na mão Resando a oração; Oração do pelingrino, Quando Deus era menino Pôlos seus pés no altar, Começou sangue a correr. Veio Santa Madanella Com tres lencinhos de côr Para alimpar o Senhor; “Tata, tata, Madanella Bem me escusas de alimpar Que estas são as cinco chagas Que por mim tem de passar. Sobe acima áquelle oiteiro Lá verás um mouro pêro, Lá verás suas pegadas C'o meu sangue verdadeiro: Pergunta se elle é christão E se elle disser que não Pucha pelo teu cutêllo Ferra-lh'o no coração; Oh cutêllo estimado Arreliquia de perdão!</p> <p>Quem esta oração disser De dia a dia Poderá ter certo Que lhe ha-de apparecer A Virgem Maria, Ella lhe dirá: Confessa-te pecador Que te ha-de vir buscar Deus Nosso Senhor Para a Santa Gloria,</p> <p>Amen!</p>	<p>Tam bonita como uma rosa, Quando Deus aqui nasceu Todo o mundo estremeceu. Um anjinho Gabriel, Perguntando pelos pastores, Pastorinhos dalgum dia, Rezando no seu livrinho, Rezando quanto podia, Salva a mim, salva a ti, Não me salve, ó meu Anjo, Que matou o menino Jesus, Alminhas vão com ele Para sempre, amém, Jesus.</p>	<p>Tão formosa c'm' à rosa, Quando Deus quis nascer Toda a Terra esclareceu. Veio o anjo São Gabriel Procurando p'la pastorinha. - Pastorinha do bom dia! Já lá vem Santa Maria Por aquele perro cão Rezando uma oração C' o seu livrinho na mão. Nem pus a mão na cruz, Nem disse “<i>Amen Jesus</i>”. Mas anda cá Luís Teixeira, Que serás meu embaixador. <i>Vás</i> além àquele castelo, Qu' hás-de ver um mouro perro. Procura-lhe se é cristão. Se ele disser que não, Pega no teu cutelo, Espeta-le no coração. Ó cutelo para estimar, Tem as <i>relicas</i> do perdão Com que foi <i>aseteado</i> O mártir São <i>Sabastião</i>.</p>
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Interesgarria da Fernandes Thomásen ohar bat (1913: 85): “Segundo afirma o Dr. J. Leite de Vasconcellos, estes versos fazem parte da *Oração do Peregrino*, (*Revista Lusitana*, vol. 6, pag. 284)”, otoitz-sorta hau erromesaren otoitzaren barruan integratua dela, alegia. Gogoratu behar da gaztelaniazkoaren zati bat ere *El peregrino* izeneko auto sakramentalean kantatzen zela.

Brasileraingo ere iritsi da erromantze hau, eta, ezagutzen ditugun bi bertsioren arabera, are Portugalekoak baino hurbilago dira, beren soiltasunean, gaztelaniazkoetatik; horrek pentsaraz lezake Portugalekoetan bai eta gaztelaniazkoetan ez diren motibo eta elementuak gero erantsiak direla, eta ez gaztelaniazkoetan, katalanezkoetan eta Brasilekoetan galduak. Brasileko bi testuak hartu ditugu 1963ko artikulu batetik (Santos Neves 2008 [=1963]), baina 1923an eta 1951n bilduak dira:

**Mangarai - Brasil (1923)**

Angelina gloriosa,  
Tão esbelta como a rosa,  
Quando o bom Jesus nasceu  
Todo o mundo estremeceu.  
Veio o anjo Gabriel  
Co'a espada matou Lusbel.  
Rezando de cada dia,  
A oração de cada dia,  
Em louvor do seu divino,  
Para salvar o peregrino  
Das tentações do pecado:  
E depois de ter orado,  
Assim falou:  
Santa mãe que estais no céu,  
Salvai-me, e não ao judeu,  
Que matou o bom Jesus  
Lá atrás da vera cruz:  
E é esse crime atroz  
Qu'inda pesa sobre nós.

**São Paulo de Viana - Brasil (1951)**

Anjinhos gloriosos  
Sois tão puro como uma rosa  
Quando o bom Jesus nasceu  
Todo o mundo esclareceu  
Veio o Anjo Gabriel  
Perguntou pela pastora  
A pastorinha deu bom dia  
Que lá vai Santa Maria  
Com seu livrinho na mão  
Rezando contas por dia  
Salve a mim e a ti  
E não salve com o judeu  
Que matou seu bom Jesus  
Lá no pé da Vera Cruz  
Com três cravos encravados  
Três espinhos coroados  
Para sempre amém Jesus.

Azkenik, esan behar da ezagutzen dugula erromantze honi dagokion doinu bat ere. Batetik, Fernandes Thomásek pentagrama hau ematen du, testuarekin batera (1913: 84):



Bestetik, Fernando Lopes Graça musikari portugaldarrak (1906-1994) apailaturiko moldaketa kantatua entzun daiteke, abesbatzak kantatuta, adibidez ondoko webgunean (Figueira da Fozen 1884.ean bilduriko letrarekin):

<http://www.youtube.com/user/grupocoralqueluz>

<1173v> Angelina gloriosa,  
tan hermosa como la rosa;  
quando Dios Hijo nació  
por la tierra pareció.<sup>1</sup>

<sup>1</sup> *pareció*: ‘agertu zen’, hots, gaurko *apareció*.

Bino el ángel San Graviel:<sup>2</sup> 5  
 “¡Oy,<sup>3</sup> el pastor, el de Mendia!<sup>4</sup>  
 ¡Qué hizo nuestra Señora María!  
 ¡Oy, Dios, gozo alegría!  
 ¡Alegráos! De todavía  
 todo el mundo salvaría, 10  
 sino aquel perro judío<sup>5</sup>  
 que nuestro Señor mató  
 y manos enclavó”.<sup>6</sup>  
 Su corazón vendido,  
 el espino con espino,<sup>7</sup> 15  
 dé al varón en San Martín:<sup>8</sup>  
 “Con gran dolor, romero,  
 vete a tu vida;  
 ganarás Roma sancta”.<sup>9</sup>

<sup>2</sup> *San Graviel*: Berez, Bibliaren arabera, Gabriel aingeruak Ama Birjinari iragarri zion, deikundean, Jesusen etorrera (Lk 1, 26-38), eta Jesusen jaiotza artzainei iragarri zieten aingeruek ez dute izenik (Lk 2, 8-13 eta ). Baina herri-tradizioan eta gabon-kantetan ez da ezohikoa Gabriel aingeruak ematea berri ona artzainei.

<sup>3</sup> *Oy*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>4</sup> *el de Mendia*: Aldaera honen bidez ([...] *buen día* > *el de Mendia*) etxekotu egin da bertsoa, euskarazko izen batekin interpretatuaz.

<sup>5</sup> *perro judío*: Paulok Tesalonikarrei idatzitako lehenengo gutunetik abiatuta (1 Ts 2, 15-16), Eliza kristauak juduei leporatu zien Jesus hiltzearen errua, 1962.ean Joan XXIII.ak barkamena eskatu zuen arte.

<sup>6</sup> *manos enclavó*: Jesusen nekaldiaren kontakizunaren arabera, gurutzean josi zuten (Mt 27, 35).

<sup>7</sup> *espino con espino*: Jesusen pasioan buruan ipini zioten arantza-koroaz (Mt 27, 29) dihardu.

<sup>8</sup> *Su corazón vendido*, / *el espino con espino*, / *dé al varón en San Martín*: Hemendik aurrera oso itxura fragmentarioa du otoitzak. Beste hizkuntzetako bertsoekin alderatuta ikusten da haietan ere agertzen direla hemengo motiboak eta elementuak, baina Martin Lopez Bikuñaren bertsoan irudi hutsak geratu dira eta zentzu diskurtsiboa galdu dute.

*San Martín*: Toursko San Martinek, legendaren arabera, eskekoari eman zion bere kaparen erdia (beste erdia Erromako ejerzituarena zelako). Geroko bertsoetan, bigarren erdia Jesusi eman zion. Otoitz-sorta honen gaztelaniazko bertsoetan, eskekoa erromesa da. Martin Lopez Bikuñaren bertsoan, ez da kontatzen San Martinen kaparen pasarte, eta are *San Martín* leku-izen bihurtzen da.

<sup>9</sup> *Con gran dolor, romero*, / *vete a tu vida*; / *ganarás Roma sancta*: José de Valdivielsok *El peregrino* antzezlanean bilduriko kantua da honen hurbilekoena: “Romero, vete a tu guía, / ganarás la romería. / Romero, vete a tu patria, / ganarás la Roma santa”. Aragoiko Campo de Belchite eskualdean 2002.ean bilduriko bertsoa ere ez da oso desberdina: “Romero, vete a tu casa / a cuidar tu santa casa. / Romero,

Las puertas del Padariso 20  
 abiertas las allaría.<sup>10</sup>  
 Ángeles cantan en coro  
 con coronas de oro.<sup>11</sup>

*Pater Noster; dies Ave María. Amén.*<sup>12</sup>

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**izenb.** Testu nagusiaren eskuineko zuriunean idatzi da gehiena, Martin Lopez Bikuñaren eskuz. B10: 20-22 (eta B10: 19ko *cta* amaiera) testu nagusiaren azpiko zuriunean idatzi da, eta B10: 23-24 (eta B10: 22ko *coro*) testu nagusiaren ezkerreko zuriunean, B9 poemaren azpian. **4** tierra] esk. *tiera*. **6** Mendia] esk. *mēdia*, *-n-* kontsonantearen ordezeko diakritikoarekin. **7** Señora] esk. *senora*. **10** mundo] esk. *mūdo*, *-n-* kontsonantearen ordezeko diakritikoarekin. **11** perro] esk. *pero*. **17** gran] *-r-* orbandurik. || dolor] *-d-* orbandurik. **19** sancta] esk. *sācta*, *-n-* kontsonantearen ordezeko diakritikoarekin. **20** Las] *l-* letraren azpian zerbait (agian *c-*) idatzirik. || Padariso] *-r-* orbandurik. **21** las] esk. *la*. **24** Pater Noster] esk. *P' N'*, laburduraz. || Ave María. Amén] esk. *amen avemaria*.

---

vete a tu día / a ganar tu romería”. Erromesaldian Erromara joanez irabazten den barkamen osoaz dihardu *ganarás Roma sancta* aipatzean.

<sup>10</sup> *Las puertas del Padariso / abiertas las allaría*: Testuaren fragmentazioaren ondorioz, ez dakigu erromesa den paradisuko atek zabalik aurkituko dituen, ala, Campo de Belchiteko bertsoan bezala, otoitz-sorta hau hainbat aldiz esaten duena.

<sup>11</sup> *Ángeles cantan en coro / con coronas de oro*: Katalunian bilduriko bertsoan dago testu-zati honen paraleloa: “Els que canten dalt del cor, / porten corona d'or; / els que canten a l'iglesia / porten corona, corona de seda”.

<sup>12</sup> *Pater Noster; dies Ave Marías. Amén*: Beste hizkuntzetako hainbat bertsiotan bezala, otoitz-sorta honekin batera zein beste otoitz esan behar den zehazten da: aitagure bat eta hamar agurmaria.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B10 – Angelina gloriosa...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago